

bardiñaz begiratuki; ez bata ez bestiaren aldez egin barik.

Batak bestiakin dauzan zerikusijak aztertu ta neurtu ta banatu bial doguz. Au egiten ba-dogu lastef dikuskegu Uskurtz orok gauza bi daukezala. *Guftza* (kultua) ta *siñesmenak*. Bijotatik lenengua siñismena da, siñismentatik guftza jagoten dajako. Siñismentak gixon-adimenetan almen ta indaf aundi-aundija dabe, gixon bakoixaren adimenan nagosiñtasun ankefez jaf ten dira; gixonak ezin dauz eurak alden du, umetxubak, indafsubaguak lotuten dautsozan lokafijak, aldatu ezin dauzan lez.

Guftza, ba, siñismentatik datoř. Siñismentena, baña, ęnundik? Bial-biafez gizařtetik.

Ořetarako jakin bial da Durckeim jaunak, Comptegandik ikasita-edo uste dau la, eztagola gixon - ataz egizko ixakeria daun gauza bat be, gixařtia ezik. Eztago berentzat lagirik, ez Jaungoikorik, ez ezer, bakaf-bakafik gixařtia.

¡Bai dira onek geure ele garbi ta edefian iñoz ez-edo entzun diran erotasun eta astakerijak!, baña gauřko sasi - jakintzea zorakeri ořetan-edo dagolako, uřenguan diñardukegu erotasun berorixek sakonago azteřtuten.

*Urutia'tař Gotzon.*

M. B. S.

Santo Domingo de la Calzada (Logroño).



# : BASATXONUA :

(AMABOSTEKUA)

Mendi - mendiyen, egi gañian, bakaf ta txiro, basatxauno bat antxen tantayen kerizan dago; negu beltzian elur zuriyez txit apaindua, udara alayan liliyen usaiz lufinkatua, garai guzitan artzayen otoiz ereskitua.

Ormetan margo ta uře - zilařik euki ez ařen, Josu - irudi bat kurutzaldua bertan da ikusten; nun bidaztirik naiz izan mendi edo uriko basatxaunuan sartu gaberik an ez da igaro, ezta ere irten otoi egin - ge, sartu ezkeru.

Efa bertatik, gogaltsu, bera begitzen dute, baita ain be dagon uri zakařa ezetsi ere; ba basatxauno goi bakar artan guztiz maiteki Josu maitiak kurutzetikan die irakatsi aundi usteko ludiya ikusten, dan bezin txiki. **Tene.**